

SAGARDOA munduan zehar.....

Belaunaldiz belaunaldi, mendez mende, sagardoa gure aiton-amonen edari nagusia izan dugu euskaldunok. Sagardoak euskaldunarekiko lotura sakona duela ezin liteke ukatu, baina nahiz eta guk pentsa horretan ere bereziak garela eta ez dagoela sagardoarekin halako lotura duen beste herririk, oker gabiltza. Horretaz jabetzeko nahikoa dugu internet-en bueltatxo bat eman eta sagardoari buruz dauden guneak topa eta irakurtzea. Horixe egin dugu eta zera aurkitu dugu:

FRANTZIA

Lurralde honetan sagardoa Bretainia eta Normandian egiten da, hemen doazkizue halako helbide interesgarri batzuk, bertan zein motako tolar, kupelak eta sagardoa egiteko erabiltzen duten erak aurki ditzakezue.


http://saveurs.sympatico.ca/ency_4/pomme/bretagne.htm

<http://www.cominter.com/gastronomie/FR/lecidre.htm>

<http://www.acdev.com/monuments/musees/cidre.htm>

IRLANDA

Herri honetan bada sagardo bat "Jhonny jump up" (Jhonny bapatean zutitu da). Jakin beharko genuke sagardo hain indartsua izango den berez!



INGALATERRA

Herri honetan edaten den sagardoa guztiz gozoa da, hau da, industrial, atxanpainatua eta abar. Egia esan guk euskaldunok ez genioke sagardo honi aprezio handirik egingo. Bestalde esan beharra dago litroak kontuan izanik sagardo gehien edaten duen herria Ingalaterra dela.

<http://www.bulmers.com/>

<http://web.bham.ac.uk/GraftonG/cider/homepage.htm>

<http://www.ciderbrandy.co.uk/>

ESTATU BATUAK

Herri honetan ere sagardo asko egiten da, bada halako sagardo naturala bat "hard cider" edo sagardo gogorra deitzen diotena, gure sagardoaren antzekoa omen dena. <http://www.countycider.com/>


ESPAINIA

Espainian sagardoa topatu nahi badugu garbi dago Asturias aldera jo behar dugula.

Asturias-eko webguneetan sagardo naturalaren historia aurki dezakegu, euskaldunen eta asturiarren artean zein izango ote zen sagardoa egin zuen lehenaren gatazka ere eztabaidatzen dute. Badira helbideak "escanciado" delako hori nola egiten den eta zergatik azaltzen dutenak. Sagardo museoak ere internet-en jarri dituzte eta, bertako sagardogileek ikusi beharko luketen sagardotegia, ISO-9002 araua betetzen duen sagardogile ere bada! www.terra.es/personal/fonendez // www.lasidra.com www.navarcus.com/museosidra // www.sidra-escanciador.com




Euskaldunok internet delako horretan ere martxan jarri gara eta bertako sagardoaren guneak ere badiugu, hau da, guk beste herrialdeko informazioa ikusi, jaso eta aztertu dezakegun bezala, besteek ere gure sagardoa egiteko era eta abar azter eta ikus dezakete. Hona hemen helbide batzuk:



www.argia.com/sagardoa Sagardoaren gida topa dezakegu, honen barruan Euskal Herriko sagardotegien zerrenda, ezaugarri eta argazkitxo batekin daukagu, bestalde sagardoari buruzko beste hainbat gai ukitzen ditu: historia, sagardogintzaren prozesua eta gbar.

www.sagardoa.com Hernaniko sagardoaren webgunea. Bertan, Tolarea Gipuzkoako sagardo naturalaren kofradiaren berri dugu; sagardoaren historia, sagardoa Euskal Herrian eta sagardogintza bere atal guztietan ere topa dezakegu, hau da, sagar bilketa, sagar jotzea, estutzea eta abar. Sagardoa eta sagarrari buruzko bilduma zabala dugu. Hernaniko sagardotegi gida ere badugu.



Euskaldunok orain arte sagardoa Euskal Herrian egin izan dugu, baina bada gure herritik kanpo bizi diren euskaldunak ere sagardoa egiteko 'kapritxua' mantentzen dutenak. Artikulu hau sinatzen duenak honako gutuna jaso zuen internet-en bidez orain dela bi bat hilabete. Hurrengo artikulua, datorren urtean, Uruguaiiko sagardoari buruz egin beharko dugula uste dut:

Kaixo, le estoy escribiendo desde Uruguay en sudamerica, pues estamos elaborando algo de sidra artesanalmente, y lo hemos hecho basandonos en el modelo de elaboracion de su página. Existen sin embargo algunos detalles que quisiera tener en cuenta.

Existen sin embargo algunos detalles que quisiera tener mas afinados y saber si sería posible que usted me ayudase o de lo contrario contactarme con alguien que pudiese.

Espero entonces una respuesta.

Desde Canelones Uruguay me despido de usted.

HARMAN ETCHEVERRY // Click here for Free Video!! <http://www.gohip.com/freevideo/>